

Angel Erro

♦ IDAZLEA



JOSU SANTESTEBAN

Epitafioa

ARREBA eta biok hilerrira joan gara, aita gabe eta, ondorioz, otoitz egin behar izan ez dugunez eta lorerik ekarri ez dugunez, ez dakigu zer erritori jarraitu. Arrebari esan diot, hiltzen naizenean, ez dudala toki fisiko bat nahi, eta saihestsi ezingo balu, lorontzirik gabekoa behintzat. Arrebak uste du garrantzitsua dela erreferentzia fisiko bat edukitzea, nora jo izan dezaten norberaz gogoratzeko. Nik erantzun diot hitzezko hondakinak besterik ez nukeela utzi nahi. Berak ez dit ulertu eta hilarrian zer grabatu erabaki ote dudana galdetu dit.

Twitterreko bere kontuan Ana I. Morales kexatzen zen *Idazleei galdezka* liburuan idazleen biografiaren neurrian alde handiak zeudelako. Bakoitzak berea idatziko zuen. Ez zait egiteko zailagorik bururatzten. Twitterren biografiarako tarte lapidarioan ere bere buruaz zerbait idaztera ausartzen direnak miresten ditut. Irudipena baitut, puntu hau nola konpondu, sorkuntzaren arazo berdina dakarrela. Topikotik ihesi nola esan. Bertsolerro batek adina eragiten dit honek larrimina. “Nire lagun-en laguna eta batez ere euskalduna”, “*De paso por el mundo*”. Holako idazkunei ez diet egia-irizpiderik aplikatzen, irizpide estetikoak baizik. Literaturari bezala.

Gezurriaren paradoxa ezaguna da (“esaldi hau gezurrezkoa da” edo “gizon batek dio beti esaten duela gezurra, orduan gezurretan ari da?”). Hilartitzarena ere paradoxikoa da. Hilobian idatzitakoa, eta hilobia bera, literaturaren ikurra da. Bertan lehen pertsona fikzio bat da, aditzaren aldia ere bai. Ingelesak ezintasun hau begien bistara ekartzen digu, nik dakidala, inoiz erabili ez den epitafio posible honetan: *Here lies one who always told the truth*. Hots, “hemen datza egia beti esan zuen bat”, edo, ingelesetik nola itzultzen duzun, “hemen gezurra esaten du egia beti esan zuen batek”. Hemen datza paradoxa bat.

Hemen natza ni, hitzotan. Mallarmék gutun batean dio: “Hildakoek bere alde dute hobi bat, geure begiez ikus dezakeguna, non otoitz egin baitezakegun”. Hobi gotor bat, eta barruan isiltasun zikoitza eta gau itzelezkoa, besterik ez. “*Un sépulcre solide où git tout ce qui nuit, / et l'avare silence et la massive nuit*”. Mallarmék, hala ere, esan zuen poeta bakar-tu ohi dela bere hilobia zizelatzeko, idazteko. Hildakoa gogora ekarriz haren hutsa ez besterik adierazten dugu. Izanetik izenera eta naizenetik zenera dagoen hutsune mitifikatzailea datza lur edo hitzen azpian.

1991. urtean, Côte-d’Azurreko herri batean, Marchal andrea hilda aurkitu zuten, odol-
lez idatzita bere epitafioa: *Omar m’a tuer*. Omar lorazaina akusatatu eta kondenatu zuten.

Orain gutxi kasua berririki dute, probak berraztertuko dituzte. Lorazainaren abokatuek beti defendatu dute akats gramatikal hori (*Omar m’a tuée* beharko bailuke) pentsaezina dela Marchal andrearengan. Ez dut uste alegatu dutenik inork ezin duela bere epitafioa idatzi.

Hamleten aitaren manuak “*remember me!*” eskatzen dio Hamlet-i. Teoria zahar baten arabera, Shakespearek lan honetan nahi izan zuen Hamnet bere semea (Hamnet Shakespeare, 1585-1596) ehortzi. William antzezleak taula gainean “Hamlet, zure aitaren izpiritua naiz” zioenean, bere seme galduarekin bat egingo luke (enpirikoki gabe, poetikoki; egiaz gabe, alegiaz), paperak trukatu zituzten, aita hilda eta semea bizirik. Shakespearek eta bere semeak elkarri eskatzen diote elkar gogoratzeko betiereko begizta batean eta biak “oroitu nitaz” horretan bizi dira betiko.

Horrelako zerbait azaldu diot arrebari. ■



Antton Olariaga